

Aitor Zalaleta

KAZETARIA

Pragmatismoaren mendea

Gasteizen alderdi politiko berri bat sortu dute udal hauteskundeetarako. Ongi Etorri dauka izena eta Sos Arrazakeria taldeak ipini du martxan. Etorkin askoren kasuan boto eskubidea ez dela betetzen jakinaraztea da bere helburua.

Gure artean hogei urte daramatzen senegaldar batek, adibidez, ez du botoa emateko aukerarik, nahiz eta bere egoera guztiz legala izan. Kolonbiarrek, ekuadortarrek edo boliviarrak, ordea, bai, herrialde horiek eta Espainiak hitzarmena baitaukate udal hauteskundeetarako. Beraz, nongoak diren, badute edo ez dute boto eskubidea etorkinek. Urte batzuk barru sinestezina egingo zaigu, emakumeek botorik ez izatea historiaurreko kontua dela dirudien moduan. Ongi Etorri alderdia albiste ona da, txikiak ere badute esatekorik, politika aberastera datoz. Eta zenbat eta hobe eskuin-ekzker sailkapena gaindizten badute.

Bukatu dira XX. mendeko borroka ideologikoak, nahiz eta oraindik batzuk konturatu ez. Gaur egun, politikaren murririk inportantea ez da ezkerria eta eskuina edo progresistak eta kontserbadoreak banatzen dituen.



Iraultzaileen Europako erreserba
espirituala izan gaitzeko, XIX. eta
XX. mendeko ideologiaren
parke tematikoa. Guk daukagu
alderdi ezkeriarren munduko
errekorra. Bada meritua



Eraginkorra izan ala ez da kontua, gaitasuna erakutsi ala inkompetentea izan, sinesgarritasunez jokatu ala itxurakerietan ibili. Den Xiaoping-ek, Txinako erreformen aitak, ederki azaldu zuen: “Saguak harrapatzen dituen bitartean, berdin da katua grisa zein beltza izan”. Paradoxa bada ere, komunista batek ireki zuen pragmatismo post-ideologikoaren bidea. Eta horixe da gizarteak politikariei eskatzen dietena: konpondu ditzatela arazoak, eta ez sortu. Izan daitezela eraginkorrak, eta ez dogmatikoak.

Pragmatismo post-ideologikoaren mendea izango omen da XXI.a. Joera horri balore humanistak gehitzen badizkiogu eta ekonomia politikaren menpe eutsi, tresna baliagarria izan dezakegu etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Pragmatismoak bultzatuta, sozial-demokraziara pasa dira alderdi ezkeriar gehienak Europan. Euskal Herrian, oster, ezkeriarren taldea gero eta ugariagoa da, iparra galduta gainbeheran doazen alderdien partaidetza berriarekin. Iraultzaileen Europako erreserba espirituala izan gaitzeko, XIX. eta XX. mendeko ideologiaren parke tematikoa. Guk daukagu alderdi ezkeriarren munduko errekorra. Bada meritua. ■

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Entzun dugu eskatzen ohiko tabernan, *Diario Vasco* eta *Marçak* hornitzen duten horretan. Bere euskaltasuna adierazi nahian edo “yo soy tan vasco como tú” euskaldun bati esan zionak “café vacío” bat eskatu du. Bakarrik hartzekoa zela ulertu dio zerbitzariak, esnerik gabea alegia eta hala eman dio, beltz-beltza. Funtzionatu egin dio, bertan geunden euskaldunek ez baitugu txintik atera, gure Donostialdeko auzoan erdaldunek ez bezala gure aita zenak basoerdi beltza nahi eta “medio vaso negro” eskatu izan balu. Gutxiagogatik makinan adar-jotze jasan behar izan zuen bere garaian gazte-

Kafe bakarrik

leraz eginarazten ziotenean, nahiz eta berari gutxi axola. Mundutik mundura gabiltzanok horrelakoak pasa behar izaten ditugu, zuzentzeak lotsa. Eta ezin dugu

oraindik ere, lagun bat inguratu eta euskaraz ari garelarik, inguratzen gaituztenen soen artean, gaizki egiten ari garenen sentsazioa ekidin, garai bateko “seguid en vasquense” delakoa entzungo bagenu bezala. Izan ere, hori aldatu da, orain “a mí también me gustaría...” esango dizute, zuri esnatzean pianoa maisuki jotzea gustatuko litzazukeen bezala. Mundutik mundura gu, munduan berak. Eta mundutik mundura egiteko, eskatu gabeko baimena behar. ■